



# lorea

Asistentzia-taldeen Ratioen Antolamendurako Legea



2018ko urtarrila

[lorea.lab.eus](http://lorea.lab.eus)





## Asistentzia-taldeen Ratioen Antolamendurako Legea

LAB sindikatutik eztabaida bat ireki nahi dugu jendartean, behar dugun osasun ereduaren inguruan. Horretarako, proposamen ireki bat egiten dugu egungo eredia berriz pentsatzeko eta erronka batzuk markatzeko, etorkizunean asistentziaren eta lanaren kalitatea ziurtatuko dituztenak.

Gure proposamenak ratio lege bat planteatzen du, argi eta garbi ezarriko duena artatu behar den populazioarekiko profesional kopurua (osasun arlokoak eta bertze arlo batzuetakoak). Pazientearen zaintzak gure osasunaren ardatz egituratzailea izan behar duen gisa berean, osasunak zerbitzu publikoen kalitatea ziurtatu behar baitu. Hala, ratio lege bat ezartzeak enplegu duin eta egonkorra ziurtatzea ahalbidetuko du eta pribatizazioen mehatxuen aitzinean blindatuko du gure osasuna.

**lorea** LAB sindikatuaren proposamen bat da, gizarteari egina. Egungo osasun eredia eraldatu nahi baitugu, profesionalen lan baldintzetan eta pazienteen zaintzan ekitatea sustatuz. Egungo osasun sistemaren hondatzea bukatu behar dugu, prekaritatea bukatu behar dugu, murrizketen politikak bukatu behar ditugu.

Aurrera egin dezagun osasun publiko, iraunkor eta kalitatezko baten alde.



@lorealab



<https://www.facebook.com/lorea2018lab/>



<http://lorea.lab.eus/>



lorea.lab



[lorea@lab.eus](mailto:lorea@lab.eus)



@lorealab

BAIONA 10 Santa Ursula Plaza. Telf: 0559595020 - PK - 64100 - [baiona@lab.eus](mailto:baiona@lab.eus)  
BILBO Errekalde Zumarkalea 62-behea. Telf: 944706900 - Faxe: 944706906 PK-48010 - [bizkaia@lab.eus](mailto:bizkaia@lab.eus)  
DONOSTIA San Bladi, 1 Behea (GROS) Telf: 943458640 - Faxe: 943456645 PK-20013 - [donostia@lab.eus](mailto:donostia@lab.eus)  
GASTEIZ Fermin lasuen, 13 - behea. Telf: 945255877 - Faxe: 945253598 PK- 01001 - [araba@lab.eus](mailto:araba@lab.eus)  
IRUÑEA Arga Ibaia kalea, 12-14, behea P.K. 31014 Telf: 948221130 - Faxe: 948221276 PK - 31014 - [nafarroa@lab.eus](mailto:nafarroa@lab.eus)



Esku artean duzun dokumentua **lorea** proposamenaren aurkezpena da.

**lorea.lab.eus**  
webgunean  
eztabaidarako  
etengabe  
eguneratuko den  
txostena  
topa dezakezu.



## XXI. mendeko osasunaren erronkak: laguntzetako kalitatea eta lan duina

---

**LAB sindikatuan uste dugu badela garaia ratio profesionalen auziari ekiteko; bada garaia arau batek laguntza ratioak ezar ditzan. Helburu bikoitz batekin: laguntzak kalitatezkoak izan daitezen, eta enplegua duina eta egonkorra izan dadin.**

Egungo ereduak behin eta berriz erakutsi digu ez dela eraginkorra. Gaizki antolaturiko ekipoek ezberdintasunak sortzen dituzte profesionalen artean, eta horrek desorekak sortzen ditu lanetan eta laguntzetan, gehiegizko desproporzionaltasuna dela-eta. Makillatu gabeko benetako kalitate estandarrak lortze aldera, nahitaezkoa da araudi bat, profesionalen arteko ekitatea erregulatuko duena eta plantillak lan kargaren arabera egoki antolatuko dituena.

Aitzindariak izan beharko genuke ratioen lege baten garatzean, plantilla finkatzeko eta zerbitzu publikoen kalitatearen alde egiteko, interes politiko, ekonomiko edo bertzelakoen gainetik. Osasun zerbitzuen ikuskera neoliberalak sor dezaketen aldakortasunaren lekuko gara, Espainiako Estatuarekin egiten diren konparazio partzialak gorabehera.

Gure osasuna blindatu behar da, abagunea edozein dela ere, eta lege batek arautu behar du zenbat profesionalek artatu behar dituzten sistemako erabiltzaileak. Lege horrek

laguntzen lanak eta kargak izan behar ditu irizpide, gehiengoaren lan baldintzak okerragotu eta gutxi batzuen pribilegioak bilatzen dituzten interes korporatibistak alde batera utzita.

Badaude adibideak; badira ratio legeak enplegu egonkorra ugaritzen lagundu dutenak. Eta horrekin batera handitu da kalitatea, eta txikitu da heriotz tasa, eta plantillak fidelizatu dira, eta osasun zerbitzu publikoa osatzen duten langile guztien gaitasun profesionalak egoki garatzen ahalbidetu da.

Azterketa sakona egin behar da Osakidetzako eta Osasunbideko osasun zerbitzuak osatzen duten langile beharren gainean, asistentzialena zein laguntza asistentzialekoena.

Ez dezagun ahantz osasunaren pribatizazioak -externalizazioen bidez modu zuzenean egiten dena, zein kudeaketa klinikoko unitateen bidez zeharka egiten dena- gutxi batzuen pribilegioak blindatzen dituela gehiengoaren kaltean, batez ere, artaturiko pertsonen kaltean.





## Asistentzia-taldeen Ratioen Antolamendurako Legea

**lorea**, politika, ekonomia zein bestelako interes baino harago, gaixoaren zaintza eta zerbitzu publikoen kalitatea helburu, osasun publikoko mantenu eta hobekuntzarako Administrazioari oinarritzko tresna eman nahi dion LABen proposamena da.

Herritar guztiei osasun zerbitzu integrala emateko asmoz, artatutako populazioaren arabera osasun-langile eta ez osasun-langile kopuru egokia legez arautu nahi da. Langile estaldura irizpide finkoa ezarri nahi da. Legeak berdin eraginen lioke osasun publikoari zein pribatuari. Zehaztu nahi da artatzen

den populazio kopurua eta mota, eta emandako zerbitzuen arabera, zenbat mediku, erizain, administrari zaindari, garbitzaile, mantenu langile, informatikari... den egokia edozein espezialitate edo zerbitzu zehatzean.

Baina ez da soilik gaixo bakoitzeko langile kopuruari eragiten dion kontu bat, kualitatiboa ere bada. Gure hausnarketa eta ekarpenetan asistentzia zerbitzua eta asistentzia laguntza emateko antolakuntza eredu berrikustea eta eraldatzea proposatzen dugu.

Zaintzak emateko osasun espezialitatea eta ospitalea erdigunean kokatzen dituen eredu zaharkitua gainditu nahi dugu.

Osasun zerbitzua antolatzeko, orain arteko estamentu, korporatibismo eta hierarkietan oinarritutako eredu zaharkitua eta ez eraginkorra alboratuz, talde lanaren bitartez kalitatea bultzatuko duen beste eredu bat proposatzen dugu.

- lorea**
- Lan kargen bidezko banaketa zehazten du.
  - Langileen egonkortasuna bermatzen du.
  - Behin-behinekotasunarekin eta kontratu prekarioekin bukatzen du.
  - Politika, antolakuntza edo sasoiko irizpideen menpe ez dagoen arreta ziurtatzen du.



## Osasun Arretarako Diziiplina Anitzeko Taldeak (OADAT)

Egungo osasun ereduaren aurrean, **loreak** bi zutabetan oinarritutako ikuspegia proposatzen du:

► Asistentzia prozesu osoan zehar arreta integrala eta integratzailea izan dadin, **gaixoa asistentzia jardueraren erdigunean kokatu**ko da.

► Arreta espezializatuaren bitartez, era erreal eta eraginkorrean **Lehenengo Arreta indartu** prebentzioa, heziketa eta jarduera sozio-sanitarioaren koordinazioa bultzatzeko. Asistentzia prozesuan arreta osoa eta koordinatua izan dadin, Lehenengo Arretako langile taldea era proportzionatuan dimentsionatu.

Eredu berri hau talde lan kontzeptuan oinarritzen da: Osasun Arretarako Diziiplina Anitzeko Taldeak. Helburua gaixoaren zaintza jardueran parte hartzen duten langile kategoría guztien arteko koordinazioaren bitartez, gehieneko asistentzia kalitatea lortzea da.

Lege honek langileen berrantolaketaren oinarria finkatuko luke ospitaletan zein Lehenengo Arretan, eta talde lan eta lan talde kontzeptuetan oinarrituta, OADATen ezaugarriak eta funtzioak zehaztuko lituzke.

Era berean, helburu eta bitarteko proportzioan oinarrituta, garatu beharreko plan estrategikoen arabera,

osasun arretako diziiplina desberdinetako langile kopurua zehaztuko da.

Asistentzia beharrek eta osasun antolakuntzatik behar horiei emandako erantzun koordinatuak jarduera baldintzatuko dute, asistentzia lanetan edo hauen laguntza logistiko/administratiboan inplikaturako langile kategoría guztien ekarpena kontuan hartuz.

Azken finean, azken urteotako atomizazio eta deskoordinaziorako joeratik aldentuta, OADATak langile antolakuntzan eta asistentzia lanetan jarraibide homogeenak dituen egitura organiko integratu eta koordinatu baten barnean irudikatzen ditugu.

- EPAS**
- Helburuak lortzeko talde desberdinen arteko proportzionaltasuna aplikatzea ahalbidetuko duen arreta taldeetan langile kohesionatuez osatutako antolakuntza administratibo unitatea.
  - Talde lana bultzatuko duen langileen arteko lotura, irizpide korporatiboak eta ekitate falta saihestuz.

## Lanpostuen behin-behinekotasun kopuru handiek, prekarietateak, behin betiko lanpostuen desagertzeak eta aurreikusten diren jubilazioek artatzearen kalitatea arriskuan jarri dute

Azkeneko urte hauetan joera behin betiko lanpostuen suntsitzearena izan da, behin-behineko lanpostuak izugarri handitu diren bitartean. Osasun zerbitzuak behin-behineko lanpostuen enpresa bihurtu dira, kontratupean dagoen langile kopurua %40ra iritsi delarik. Aldi berean, burutzen kopuruaren igoerak plantillaren igoerarena bikoiztu du. Honek guztiak soldatetan, lanaldietan eta lan kargetan desberdinkeriak eragin ditu.

**Osasunbidea**n. urtero, batez beste 90 lanpostu galtzen dira. Langileen erreposizioaren faltak langile finkoen adina dexente zahartu du, horrela, 10 urteren buruan plantillaren %30 jubilatuko da ( 1.719 lagun). Beraz, bi kopuruak batuz gero, 1.719 jubilazio eta 900 lanpostu galduak, 10 urte barru 2.619 lanpostu finko desagertuko dira, baldin eta lanpostu horiek langile finko eta egonkorrekin betetzeko neurriak hartzen ez baditugu.

**Osakidetza**n, behin betiko langileen %60k 50 urte baino gehiago du. Gainera horietako %13k 60 urte baino gehiago du. Behin betiko langileen artean bakarrik %11k 39 urte baino gutxiago du. Osakidetza berak emandako datuen arabera, 2013- 2018 bitartean, 26.000 behin betiko lanpostuetatik 4.000 baino gehiago galduko dira, epe horretan aurreikusten den jubilazioa %16koa baita. Kopuru honi, beste arrazoi batzuk direla medio galduko lirakeen behin betiko lanpostuak gehitu beharko zaizkio.

Berritze eza dela eta, bi osasun zerbitzuetan lanpostuen galera eta langileen zahartzearen joera begibistakoa da.

**Behin- behinekotasuna** endemikoa izateaz gain, egoera horretan dagoen langile kopurua ikaragarria da.

Langile batek zerbitzu anitzetako kontratu ezberdinak pilotzen ditu, noiz eta non lan egingen duen jakin gabe, bere lan egoera ezegonkortuz.

Honi guztiari lanpostu ezberdinetan langileen gehiegizko txandaketa gehitu behar zaio, honek artatzearen kalitatearen okertzean eragin zuzena duelarik.

Beraz, behin betiko lanaren suntsiketak, berritze ezaren ondorioz langileen zahartzeak eta inoiz izandako behin-behinekotasun handienak, behar den moduko artatzea arriskuan jartzen dute.

Osasun sistemaren prekarietate egoerak **heriotza** indizeetan ere eragina du. Profesionalen kolektiboek eta elkarte zientifikoek egindako ikerketek osasun langileen ratio eta heriotzaren jaitsieraren arteko lotura zuzena ezartzen dute.



**Kontratu kopurua handitzen ari den bitartean, kontratatutako langile kopurua, aldiz, ez.**



## Proportzio eza langileen artean

**Arreta sanitarioan gure osasun zerbitzuetan parte hartzen duten estamentu ezberdinen eta langileen artean desoreka handiak daude. Europako batz bestekotik Espainiar Estatua, gaixo eta langileen ratioari dagokionez, oso behiti dago.**

**Europan, zuzeneko arretari dagokionez, ia langile kopuru bikoitza dago.**

Langileen mailen artean osasun taldeetan proportzionaltasuna egon behar du desorekarik ez izateko eta langile batzuk besteen aurretik ez lehenesteko.

Langileen mailen arteko egungo desorekak gehiegizko medikalizazioan antzematen dira, Oinarrizko Arretan batez ere. Desoreka honek sistema eraginkorragoa izan dadin eragozten du, gainontzeko mailetako bitarteko eta langileren faltagatik gehiegizko kontsulta eta froga kopuruak ezin baitira behar bezala konpondu.



Herralde bateko osasungintzaren kalitatea hobe da biztanleko langile kopurua handiago denean, langile horien artean oreka dagoelarik. Europar osasun sistemen artean Espainiar Estatua 19. tokian dagoela ez dugu ahaztu behar; aldiz, mundu mailan

eraginkorren artean hirugarrena da, hori bai, bertan aritzen diren langileen lan baldintza kaxkarren bizkar.


**Europar mailako datuak:** biztanleria era orekatuan artatzen duen langile kopuru egokia dagoen tokietan, bizi kalitatean eta gaixoaren arretan hobekuntza dago. Hau langileek egindako prebentzio lanari esker da eta ondorioz, patologia anitzen konplikazioak ere guttitu egiten direlarik. Ekonomiaren ikuspegitik ertain eta luzera begira gastuak ere behera egiten du.



### Espainiako osasun profesionalak




### Europako osasun profesionalak



\*(lorea.lab.eus-en iturriak ikusi)



Osasunbidean eta Osakidetzan osasun langileen arteko proportzionaltasuna Espainiar Estatukoa baino zertxobait hobe bada ere, europar mailatik urrun dago. **Espainiar Estatuak Europa osoko ratio okerrenak ditu.**



## Zaharturiko plantilla batzuekin, erretiroa hartzeko erritmoa izugarri bizkortuko da

Plantilla finkoa ez berritzeko Madrilen inposizioak plantillaren zahartzea ekarri du. Hurrengo urteetarako espero den erretiro erritmoa ikusita, enplegu finkoen suntzitzea eskandaluzkoa izanen da.

**Osakidetzan, 15 urte barru, langile finkoen %60 erretiroa hartzeko adinean sartuta egonen da.**

**Osasunbidean, %53.**

# %40

behin-behinekotasuna  
**Osakidetzan †(% 36)**  
**Osasunbidean †(%42)**

\* (Osakidetza eta Osasunbideko memorietatik lorturiko datuak)

## Behin-behinekotasun altu batek osasun sistema kaltetzen du

Enpleguaren kalitateak harreman zuzena du asistentziaren kalitatearekin. Jasaten ari garen behin-behinekotasun tasa onartezina da. Egun, tasa hori %40ren inguruan dabil Osakidetzan zein Osasunbidean.

%15etik jaisten ez den bitartean, ezin da erran enpleguan edo osasun asistentzian kalitatea dagoenik.

**Behin-behinekotasunak ez luke inoiz %15 baino handiagoa izan behar.**

Lanpostu erreserben estaldura (eszedentziak, burutzak...) behin-behinekotasunaren %8 da.






## Heriotza tasa handitu da krisialdian

Heriotza tasaren datuak argiak dira. Egiaztatu da tasa handitze hori lan baldintzen okerragotzearekin, murrizketekin eta prekarietatearen handitzearekin lotuta dagoela. Hauxe bera gertatzen da Osakidetzan zein Osasunbidean.

Hainbat ikerketak harreman zuzena ezartzen dute osasun langileen ratio orekatu baten eta heriotza tasaren jaitsieraren artean.

## Lan finkoaren galera

\* (Osakidetzako eta Osasunbideko memorietatik lorturiko datuak)



## Asistentziaren kalitatea arriskuan jartzen duen joera bat

Azken urteetan, lan finkoak behera jo du eta, egungo joera horrekin segituz gero, hamar urtean enplegu egonkorraren erdia galduko da.

Osakidetzan zein Osasunbidean ikusi den joera horrek plantilla finkoaren zahartzea dakar, ez baita berritzen. Eta horrek guztiak baldintzatzen du asistentziaren kalitatea.

Osasunbidean, 90 lanpostu galtzen dira urtero, eta horiei erretiroak gehitu behar zaizkie. 10 urtean lanpostuen %46 suntsituko dira. Osakidetzan, soilik langileen %11k dute 39 urte baino gutxiago.

## Zer suposatuko luke **loreak**?

**Hasi bezala, bukatuko dugu gure solasa: enplegu duina, langileen arteko ekitatea eta zainketen eraginkortasuna helburu, gaixoa osasun publikoko erdigunean kokatuko duen proiektu serioa babestuz.**

Lorea lan karga banaketa zuzena gauzatzeko eta estres egoerak saihesteko tresna eraginkorra da. Era berean, langileen artean akatsak eta Burn-Out gutxituko dira.

Loreak egungo osasun sisteman merkataritza kontzeptuak aplikatzea eta gaixoen beharretatik

aldendutako emaitzak lortzeko asmoa errefusatzeko dituzte. Aurrezteari begira bideratutako kudeaketa eta osasun publikoaren privatizazioa helburu duten antolakuntza ereduaren aurrean alternatiba da.

Lan prekarioarekin amaituz, Loreak egonkortasuna bermatzen du. Aldi berean, neurririk hartzen ez bada, osasun publikoari eusteko, epe laburrean arazo larria suposatzen duen langile belaunaldiak ordezkatzeko zailtasuna, kontuan hartzen du.

Arreta eta osasun publikoa mantentzeko erabakigarriak izan daitezkeen eta gaur egun jada sumatzen diren gabezi larriak gainditzeko proposamena egin du LAB sindikatuak. Gabezi horiek langile, ekitate, lan duin, prekaritate eta zainketei eragiten diete.

Proposamen hau bideratuta doan jendarte eragileek eredu aldaketa gauzatzeko beharrezkoak diren trebezia, ezagutzak eta jarrera erakutsi behar dituzte.

### **Lorea:**

**Lorea eztabaidarako proposamena da. Enplegu duina eta asistentzia kalitatezko bermatutako dituzten osasun asistentzia taldeetarako langile ratioak ezarriko dituen Lege aitzindaria da.**



Esku artean duzun dokumentua **lorea** proposamenaren aurkezpena da.

**lorea.lab.eus**  
webgunean  
eztabaidarako  
etengabe  
eguneratuko den  
txostena  
topa dezakezu.

[lorea.lab.eus](http://lorea.lab.eus)

